

AÑORGAKO BOLATOKIA
F MAILA
AÑORGA HIRIB, Z.G.

Egilea eta data: Eduardo Torroja; 1958
Deskribapena

Bolatoki berezi bat da, hormigoi armatuzko lamina fin batez osatutako estalki bat du, metalezko egitura trianguluar batek eusten duena. Estalkia sekzio zirkularreko zutabe meheetan oinarritzen da. Egitura euslea laminaren kopadurara egokitzen da (eta alderantziz), metalezko egituraren gainean jarritako ehunezko alegiazko material baten keinua nolabait imitatuz. Izatez, elkarrekin lotutako sektore konikoak dira.

1950. urtearen ondorengo eraikina bada ere, komeni da Añorgako pilotalekuarekin batera babestea, Eduardo Torrojak Añorgan egindako bi esku hartze baitira eta horrek tratamendu bateratua justifikatzen baitu.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babestu gabeko elementuak: alboetako hormak, hurrengo atalean azaldutako aurreikuspenen eraginpean ez dauden elementu guztiak.
 - B. Elementu edo zati iraunkorrak: estalkia eta zutabeak.
 - C. Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.